

Euskaltzaindiaren sorrera su txikian gertatu zen: 1918an hasi eta 1919an amaitu. Izan ere, 1918ko irailaren hasieran, Oñatiko Unibertsitatean, Eusko Ikaskuntzaren lehen batzarrean, Euskaltzaindia sortzea erabaki zen. Urte bete beranduago, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako lau Foru Aldundien babespean, Euskararen Akademia jaio zen. 1919ko urriaren 7an egin zen, Gipuzkoa Foru Aldundian, Euskaltzaindiaren lehen bilera.

Akademia sortzeko ahaleginak, nahiak, saioak... askoz lehenago hasi ziren. XIX. mendeko hainbat euskaltzalek jada azpimarraturik zuen, lehenagotik ere, hizkuntzaren defentsarako Akademia baten premia (Ulibarri, 1832; Aizkibel, 1856; Artiñano, 1886). Jose Frantzisko Aizkibelek aipamen argia egin zuen idatzi batetan:

*"Esto mismo quisiéramos que sucediera con nuestra Euskera, que poco a poco se formase un dialecto clásico o literario que comprendiesen igualmente los habitantes de todo el país vascoindiano indistintamente... aproximándose, cuanto se pueda, al estado que tenía en la época de su mayor apogeo o de su mayor pureza; para esto es indispensable la formación de una Academia compuesta de Vascongados que hayan hecho estudios especiales sobre su lengua... Las autoridades del País deben proteger... los trabajos de esta corporación... llevando a cabo el pensamiento de nuestro adorado patricio, el Sr. Conde de Peñaflores, fundador de la Sociedad Vascongada de Amigos del País que produjo tantos beneficios; de este modo estaría unida esta nación con el tiempo ethnográficamente, bajo un dialecto común literario, que al cabo de un siglo o dos predominaría, por la ventaja de ser comprendido en las siete provincias o distritos de diferentes dialectos... ya que es imposible reunirlos políticamente, perteneciendo a dos naciones poderosas".*

Urte asko pasatu ziren, baina, euskaltzaleek hain nabarmen sentitzen zuten egarria asetzeko. Bonaparte Printzea, Karl Hnnemann edo Theodor Linchsmann bezalako atzerriko ikerlariak ere lagundu zuten asmoa. Eta etxekoek ahaleginak egiten jarraitu zuten. Urteak joan urteak etorri, XX. mendea sartu zen eta ordurako argi ikusi zen mota horretako proiektu iraunkor batek erakunde publikoen babesa izan behar zuela.

1906an, apirilaren 25an, Bizkaiko Jauregi berrian Hegoaldeko lau Aldundiek egin zuten bilkura baliatuz, Adolfo Gabriel Urkixo Diputatu Nagusiak Akademia sortzeko proposamena aurkeztu zuen, horretarako lau erakundeen babes ekonomikoa eskatuz. Proposamen horren arabera, Akademia 12 kidek osatu behar zuten, eta euskalki guztiak ordezkatu behar zituzten. Horien izendapena, lehendabiziko aldiz behintzat, diputatuek egin eta babes ekonomikoa lau Aldundiek, euren gain hartu. Proposamen honek bere ibilbidea egin arren, ezerezean geratu zen.

Sua piztuta mantendu zen eta 1918an Oñatin egindako Biltzarrean sortutako Eusko Ikaskuntzak, lau Diputazioei igorri zien Arautegiaren proiektua eta laurek onartu zuten:

- .- Gipuzkoakoak, 1919ko apirilaren 11n;
- .- Bizkaikoak, maiatzaren 5ean;
- .- Arabakoak, irailaren 2an;
- .- Nafarroakoak, irailaren 3an.

Egun batzuk beranduago, irailaren 21ean, abiatu zen Euskaltzaindia R.M. Azkue, A. Kanpion, I. Eleizalde eta J. Urkixo lehen lau euskaltzain zirelarik

Lehen batzarra, 1919ko urriaren 7an, egin zuen Akademiak eta, egun berean erabaki, Euskaltzaindiaren egoitza Bilbon kokatzen zela:

*"Euskaltzaindiak'k ¿non izango zuan bere egoitza edo bizitokia? ¿Bilbon'n ala Donostia'n? Eleizalde'k, gogo ta biotz beroz Bilbo autatua izan zedila eskatu zuan, darakuskun Euskalduntasun ta erikoitasunari erantzuteagatik. Ta ala egin zan, baña edozeiñ erritan batzarrak biltzeko askatasun osoz".*

Harrezkero Akademiak beti zain du egoitza Bilbon:

- .- Erribera kalean, 1919 >1977
- .- Arbieta kalean 1977 > 1988
- .- Elkano kalean 1988 >1991
- .- Plaza Barrian, 1991eko urriaren 21tik ...